



## « Gure mendiak Europari aukerak eta etorkizuna eskaintzen dizkioten lurraldeak »

Baieztaatu egiten dugu mendiak Europako eremu bereizgarriak direla euren garaiera, malda, biztanledentsitate, erronka eta aukerengatik. Horren ondorioz, modu berezian tratatu beharko genituzke.

Inbertsio publikoa eta pribatua egin behar da eremuotan. Inbertsioaren etekina hiri-eremuetan edo lautadetan baino epe luzeagoan lortu daiteke, baina inbertsioa iraunkorragoa izango litzateke, inolako zalantzarik gabe.

## Gure indarrez harro...

**Mendiko herritarren bizi-kalitatea:** komunitate bizitza handia, bizi-ingurune paregabea eta kultura, tradizio zein ondare ezin aberatsagoak.

Mendiguneen **irudi ona.**

**Ezohiko baliabideak, zainduak eta berriztagarriak** (airea, basoa, ura).

**Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena:** turismoa, artisautza, nekazaritza, industria.

**Ekoizpen-faktore eraginkorrak:** giza kapitala, baliabide naturalen kapitala (espazioa, ura, airea, egurra), enpresa-elkarteak (klusterrak...).

**Ekoizpen iraunkorrerako baldintzak:**

Ingurumenaren errespetua, biodibertsitatearen artapena, paisaiaren kudeaketa, baliabide naturalen kudeaketa berritzailea.

**Dinamikoa izan ohi den gobernatze sistema modernoa:** "handicap" naturalak irudimenerako iturri izan dira betidanik, eta mendi eremuetan lurralde-berrikuntza inon baino gehiago garatuta dago. Hori dela eta, sarritan berrikuntza horiek inspirazio-iturri izan dira beste leku batzuetan bizi direnentzat.



## ... eta gure ahulezien jakitun

**Urruntasun eta irisgarritasun arazoak:** zerbitzurik eza, jakintza eta trebetasunik eza, sarritan egoiliarren eta ez-egoiliarren arteko harreman zailak, batzuetan garatu gabe dauden azpiegiturak.

**Lehiarekin lotutako arazoak,** jarduera ekonomikoari zein ingurumenari eusteko orduan.

**Enpresa gutxi,** enpresen tamaina txikia eta belaunaldi gazteen esku uzteko zailtasunak.

**Biztanle-dentsitate urria:** interes orokorreko zerbitzuen eskaintzarako beharrezkoa den masa kritikora iristeko zailtasunak eta urtaroko enpleguen erakargarritasun urria (diru-sarrera gutxi eta ezegonkorrak).

**Nekazaritza-jarduerarako mugak,** lurzoruen zein klimaren ondorioz, eta lurzorua eskuratzeko zailtasunak.

**Mendien berezitasunak ez daude behar beste integratuta** eskualde, nazio eta Europa mailako politketan.



## Euromontanaren ikuspegia

### 1) Garapen iraunkorraren kontzeptuarekin koherenteak izatea beti:

Euromontanaren proposamenetan, garapen iraunkorraren hiru zutabeak kontuan hartuko dira beti: 1) ingurumen-arlokoa, 2) soziala eta 3) ekonomikoa.

**2) Kalitatea sustatzea:** balio erantsia eskaintzeko, gure mendiek kalitatearen faktorea hartu behar dute kontuan: bizi-kalitatea, baina produktu zein proiektuen kalitatea ere bai. Euromontanaren proposamenek beti bermatuko dute kalitatearen sustapena, kalitateko marken bidez, batik bat.

**3) Sarean jardutea:** proiektu bakoitza zenbait erakundek garatuko dute, lider arduradunak abian jarri eta Zuzendaritza Batzordeari emango dio informazioa. Interes berberak dituzten erkidegoak sortuko dira, arazoak hobeto aztertzeko eta, mendiko herritarren arteko elkartasunean zein adimen kolektiboan oinarrituta, irtenbideak diseinatzeko.

**4) Teknologia berriak erabiltzea:** Euromontanako kideen artean distantzia fisikoa dagoenez, gure eraginkortasuna mugatuta dago. Hori dela eta, teknologia berriak erabiliko ditugu, egunero lan egiteko eta komunikatzeko: izan ere, gure lehen ekarpena izango da, energia-gastuak ahalik eta gehien murrizteko. Nolanahi ere, teknologiek ez dituzte inoiz giza harremanak ordezkatzeko, eta, gutxienez, erakunde kide bakoitzak ekitaldi batean parte hartuko du urtean (mintegia, mahai-ingurua, batzar nagusia, hitzaldia).

## Gure jardueraren norabidea

**1) Garapen ekonomikoa:** lehendik dauden jarduera ekonomikoei emandako balioa handitzea eta ekonomiak dibertsifikatzea.

**2) Giza kapitala:** negozioak belaunaldi gazteagoen esku uzteko erraztasunak ematea, enpresa-izpiritua sustatzea, prestakuntza garatzea eta trebetasunak dibertsifikatzea.

**3) Baliabide naturalak eta ondarekoak:** ingurumena, ura, hondakinak, energia eta paisaiak hobeto kudeatzea, ikuspegi integralaren esparruan (mendiguneen mailan, mendien eta hirien/lautaden arteko harremanen mailan...); kanpo eragin positiboak ordaintzea; klima-adaktetara egokitzea.

**4) Zerbitzuak eta sareak:** irisgarritasun fisikoaren eta komunikazio elektronikoen arazok azkar konpontzea; enpresei IK Ten erabileran laguntzea; zerbitzu publiko eraginkorrek ezartzea.

**5) Kultura eta tradizioak:** ekimenei emandako balioa handitzea (sustapena, ekitaldiak, hezkuntzaren eta mendien arteko lotuneak...), eta, aldi berean, belaunaldi guztiek ekonomiaren zein naturaren arteko lotune onak partekatzen dituztela bermatzea. Produktuei dagokienez, esparru eraginkorra ezartzea, babesna nahiz onespina bultzatzeko eta mendiko produktuei balioa emateko.

**6) Mendiguneetako politikak eta gobernatze sistema:** Europa mailan, subsidiarotasuna sendotzea, nazio eta eskualde mailako politiketan oinarrituta eta honako hauexen arabera ikuspegi integrala beharrezkoa dela kontuan hartuta: mendiaren berezitasunak, mendiguneen tamaina, mendien eta hirien zein lautaden arteko lotune hobeak eta lurralde-kohesio eraginkorra.

## EKINTZA zehatzak

**1) Mendiko erkidegoak ordezkatzeko.** Horretarako, etengabeko harremana edukitzea Europako instituzioekin, gobernu nazionalekin eta mendigune-mailan gobernuan parte hartzen duten gobernu arteko erakundeekin; mendi-eremuetan eragina duten politika europarrak berrikustean proposamen eraikitzaileak egitea; eta proposamen horiek kide guztiekin prestatzea, adierazgarriak bezain sendoak izan daitezen.

**2) Mendiguneen indarrak sustatzea** eta eremu horietan egindako inbertsio iraunkorrek Europarentzat daukan balio erantsia bultzatzea. Horretarako, ekitaldiak antolatzea (hitzaldiak, mintegiak, bilerak, biltzarrek...) eta artikuluak zein erreportajeak argitaratzea.

**3) Menditarren arteko lankidetzaren antolatzea.** Horretarako, proiektu europarrak garatzea eta kudeatzea (ikerketak, lurralde-lankidetzak, prestakuntza/trukeak...); kideen artean lehentasunezko ekintzako gaiak buruzko eztabaidak eta trukeak koordinatzea.

**4) Azterketak egitea, bertan parte hartzea edo biltzea,** mendi-eremuen egoerari buruzko jakintza kolektiboak aberasteko eta euren garapen iraunkorrerako orientazioak zehazteko.



# EUROMONTANAKO kide izatearen abantailak

« **Euromontana sare deszentralizatua da, eta bertako kideen arteko lotuneen eta euren ekimenen sorrerari ematen dio lehentasuna, talde txiki baten koordinaziopean. Partaidetzaren abantailak are handiagoak izango dira egindako inbertsioaren arabera!** »

**Honako hau egiten da, Euromontanako kide aktiboa izatean:**

Behar besteko politikak **SUSTATZEA**, mendiguneak euren garapenaren eragileak izan daitezten. Horretarako, mendi-eremuen inguruko kezka duen talde adierazgarri bezain bateratua sendotzea, Europar Batasunarekin eta bertako estatu kideekin harremanetan egoteko.

Nork bere erakundearen eta mendigunearen ikuspegia eta ekintzak **BULTZATZEA**. Horretarako, mendiko beste eragile batzuei eta Europako instituzioei ekintza horien berri eman, ekitaldiak antolatuta eta euren lanaren emaitzak zabaltzeko.

Mendiaren garapenean inplikaturako erakundearen sektore anitzeko sare dibertsifikatu handiari **ONURA ATERATZEA** eta euren proiektuak, elkarteak eta lankidetzak Europa mailan zein herrialdean bertan garatzea.

Euromontanak sortutako elkarteetan **LEHENTASUNEZKO PARTAIDETZA EDUKITZEA**, mendiguneetan eragina duten gaien buruzko proiektu europarrak garatzeko.

Europako mendiguneentzat interesgarriak diren gaien buruzko informazio garrantzitsua eta azterketak **JASOTZEA** (posta elektronikoaren bidez, berripaperak, web guneko eremu erreserbatua, truke tematikoak...).

Goi-mailako ekitaldietan **PORTE HARTZEA**; esate baterako, bi urtean behin egiten diren Europako Mendien Konbentzioak, hitzaldi europarrak eta kideentzako informazio-saioak.

## Zein dira gure kideak?

**15 herrialdeetako 70etik gora erakunde bat egin dute**

**Euromontanarekin:** garapen sozio-ekonomikorako erakundeak, agintaritza kolektiboak, lurralde-erakundeak, ingurumen-agentziak, basogintza-agentziak, garapenerako agentziak, ikerketa-institutuak, prestakuntza-zentroak.

Aniztasun horren ondorioz, Euromontanak ekarpen aberatsa egiten du mendiguneen garapen iraunkorrean, eta, horrez gain, bertako kideen arteko truke aktiboak ere sustatzen ditu.

**Kide izan nahi zenuke?**

**Harremanetan jarri gurekin**  
[info@euromontana.org](mailto:info@euromontana.org)



# Harremanetan jarri gurekin

**EUROMONTANA**  
Europako Mendiguneen Elkartea

Tel: + 32 2 280 42 83  
Fax: + 32 2 280 42 85  
info@euromontana.org

2, Pl du Champ de Mars,  
B- 1050 Brusela  
Belgika

[www.euromontana.org](http://www.euromontana.org)

